

TEKNOLOGIA

Sorkuntza digitala



DIANA FRANCO

Gaurkoan hiru osagai dituen hausnarke-tarekin natorkizue. Lehenengo osagaia @hezkuntzanlibre Telegram taldean partaide batek partekatu zuen abestia da: Joseba Irazokiren *Galtzen ari da*. Bigarren osagaiak harremana du aurtengo Durangoko Azokan Sorkuntza Digitalaren inguruan izan den Sorkuntza Bekaren deialdiarekin. Eta hirugarren osagaia da urrian Facebook-ek bere izena Meta izenagatik aldatu duela.

Osagai horiek eraman naute sorkuntza digitalaren inguruan pentsatzera. Eta burura datorkidana da digitalizazioaren eta bere ustiaketaren inguruan suertatzen den guztia existituko ez balitz emango ez litzatekeen sorkuntza.

Joseba Irazokiren abestia, adibidez, ez zen existituko –digitalizazioaren eta memoria-ren hausnarketa egiten duen heinean–, bideo-jokoak ez lirakeke existituko, ezta soinu sintetizatua ere, bideo mappinga...

Sorkuntza oso kontzeptu irekia da, eta eremu digitalari lotuta kudeaketan, marketinean, negozio ereduetan... oso sortzaile izan gaitzeko baita ere.

Facebooken izen berriak, Meta, metaber-tsoaren ideiarekin harremana du, espazio digital areagotu baten ideia du atzetik. Eta gaur egun digitalizazioa sustatzen duten teknologiek –batez ere telekomunikazioen garapen berriek lagunduta– espazio inertsibo hibridoak sortzeko gero eta aukera gehiago ematen dituztelako, Facebookek bere etorkizuna espazio horiek sortzen eta sustatzen ikusten du. Beraz, sorkuntza digital moduan izendatu daiteke Facebookek egiten duena.

Facebookek jarraituko du egun duen negozio eredu arrakastatsua erreproduzitzen, eta dirudienez, plataforma eredu hauek negozioa areagotzeko potentziala dute. “Metabertso” hauek, inertsiboagoak izanik, intrusiboagoak ere izango dira eta pertsonen bizitzaren inguruan gehiago ikasteko eta horrekin beraien bizitzak gehiago gidatzeko boterea emango diote Facebooki. Noraino behar dugu gure bizitzetan sartzea, bizidunon eta planetaren etorkizuna gidatzea? Sortzaileak soilik ez, sortzaile kritikoak behar ditugu eremu digitalean ere. Ez da erraza. ●

NAZIOARTEA



RAQUEL CUNHA-REUTERS

1.734.000

AXIER LOPEZ

AEBetako mugazainek 1.734.000 pertsona atzeman dituzte Mexikoko mugan 2020ko urritik 2021eko irailera bitartean, AEBetako Aduana eta Mugazaintza Bulegoaren datuen arabera. Horietatik, milioi bat baino gehiago Mexikora bueltan edo beren jatorrizko herrialdeetara egotzi zituzten.

1960eko hamarkadan erregistroak egiten hasi zirenetik, inoizko kopururik handiena da. 2019-2020 artean atxilotutakoak baino 177.000 lagun gehiago eta duela bi urte baino %77 gehiago.

Atxilotuen artean %40 mexikarrak dira, 319.324 hondurastarrak (%18.4), 283.035 Guatemalakoak (%16.3) eta 98.690 El Salvadorrekoak (%5.68). 160 herrialde baino gehiagokoa da gainerako migratzaileen (%21.79) jatorria. Aldi horretan atxilotutako pertsona gehienak (1.105.925) bakarrik bidaiatzen ari ziren helduak ziren, eta mugan bakarrik zeuden adingabeak 146.925 izan ziren. Haur horietatik ia 11.000 AEBetako Gobernuaren zain-tzapean zeuden urriaren amaieran.

AEBetara joateko pertsona horien arrazoi nagusia berbera da azterketa guztien arabera: muturreko pobrezia. Baita, beste neurri batean, indarkeria eta aurretik migratutako senideekin elkartzeko nahia ere.

Egoera ezberrik gabe okertu egin da, eta hori gertatu da Trump agintean izan gabe eta Mexikoko Gobernuaren ezkerreko buruzagia izanik, Andres Manuel López Obrador.

Joe Bidenek hauteskundeetan immigrazio-politika “gizatiarragoa”

ezarriko zuela agindu zuen arren, Mexikoko eta AEBetako mugak itxita jarraitzen du, migratzaile pobreenzat, pefosta. Eta BBC kateak ekainean argitaratutako ikerketa batek agerian utzi zuenez, atxikitze zentroan migratzaileek sufritzen dituzten baldintzak oso makurrak dira oraindik orain. Texaseko Fort Bliss atxikitze-zentroan sexu-abusuak, COVID-19 agerraldiak, gosea eta zorriak salatu zituzten lan horretan.

Mexikok, berriz, dio irtenbide iraunkorra eta sakona behar dela. El Salvador, Guatemala eta Honduraseko jendea migratzera bultzatzen duten arrazoiak errotik aldatu behar direla, programa sozialak aplikatuz, lanpostuak sortu eta bizi-maila pixkanaka hobetzeko. Epe luzeari begira zentzuzko neurria da, baina, agerian geratu denez, ez da nahikoa egungo migrazio-krisiaren aurrean.

Mexikoko Giza Duintasunerako Zentroko zuzendari Luis García Villagránek *La Jornada* egunkarian salatu duenez, Mexikoko Migrazio Institutu Nazionalako agenteek migratzaileen karabanako kideak “hegazti harraparien antzera jazarri, harrapatu eta atxilotzen dituzte”.

AEBetan oraindik ere herritarrak heriotza zigorrera kondenatzen dituzte, eta “delituak” ez dira gutxitu. Bada, migratzaileen aurkako neurriak gogortzeak ere ez du exodoa geldiaraziko. Jaioterria, familia, lagunartea eta babes sarea atzean utzita, eta inoiz bizitzan egingo duen bidaiarik arriskutsuenari aurre egitea, ez baitu inork gustuz egiten, beharraz baizik. ●